

ETXAURI IGERILEKUEN TABERNA ALOKATZEA 2025KO UDAN

Errentamenduak baldintza hauek bete beharko ditu:

KONTRATUAREN IRAUPENA

Errentamendu-epa 2025eko ekainaren 1etik irailaren 7ra izanen da, eta taberna 2025ko ekainaren 12tik irailaren 7ra irekiko da, biak barne.

ERRENTARIEN BETEBEHARRAK

- Errentariak ez du alokairurik ordainduko, baina 1.200 euroko fidantza jarriko du. Honela ordainduko da: 600 euro kontratua sinatzean, eta 600 euro kontratua sinatzean eta uztaileko bigarren astean.
- Argiaren, uraren eta gasaren gastuak Denak Bat Erakunde Autonomoak ordaindukoditu.
- Garbiketa-materiala errentarien kontura izango da.
- Establezimenduaren barruan eta kanpoko terrazan gertatzen denaren kontrola eta erantzukizuna bere gain hartu beharko ditu.
- Abonatu iraunkorren sarreraren kobrantzaz eta sarrera-kontrolaz arduratzea, hau da, instalazioetako edukiera kontrolatzea.
- Tabernaz eta sukaldeaz arduratzea, eta menuak astelehenetik ostiralera eta asteburuetarako eskaintzea.
- 15 egunean behin udaletxeko bulegoan entregatzea aldi horretan sarreraren kontzeptuan bildutako dirua, bai eta saldutako sarreraren mota eta kopurua jasotzen dituen zerrenda bat ere.
- Zerbitzua emango duten pertsonen kopurua idatziz adieraztea
- Tabernako lokala, kanpoko terraza, erretegiak eta aldagelak garbitzea.
- Edukiontzietako zabor-ontziak hustea, beharrezkoa denean.
- Edarien prezioa erakundeari aurkeztea, taberna ireki aurretik onar dezan.
- Instalazioetan gaua ez ematea inola ere.
- Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea, instalazioetan lan egiten duten pertsonen antzera.
- Kontratua sinatzerakoan bulegoan aurkeztuko duen elikagai-manipulatzailaren txartela izatea.